



ONDARROAKO UDALA

1

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/1

Eguna: 2012-01-11

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:15

Tokia: Batzar-gela 2

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

Batzartutakoak:

| | |
|----------------------|--|
| Leire Beitia | Udal Euskara batzordeburua |
| Iera Arantzamendi | Udal Euskara lantaldeko kidea |
| Miren Urresti | EAJren ordezkaria |
| Itxasne Murillo | Txomin Agirre ikastolako ordezkaria |
| Edurne Arantzamendi | Zubi Zahar ikastolako ordezkaria |
| Bakarne Aretxabaleta | Ondarroako Institutuko ordezkaria |
| Gurutzne Anakabe | Zaldupeko eskolako ordezkaria |
| Txomin L. Aramaio | AEKren, Radixu irriatiaren eta Kafe Antzokiaren ordezkaria |
| Mikel Santiso | Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria |

Batzarrera etorri ez direnak:

| | |
|-------------------|---|
| Nagore Alegria | Txirimorraski ODLTren ordezkaria (ezin etorria adierazia) |
| Arantza Atxurra | Ezker Abertzaleko kidea |
| Imanol Oruemazaga | Ondarroako Historiazaleak taldeko ordezkaria |
| Eladino Gonzalez | Ondarroako Osasun Zentroko arduraduna |
| | Zatozte elkarte |
| | Lea-ArtiBAI euskarari elkarte |
| | Hitza |
| | EHE |

Batzordearen idazkaria:

Maite Rey

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Batzordekideen ekintza-proposamenak:
 - Aurrekontua osatzeko batzordekideen proposamenak.
 - Letren Jaialdia antolatzekeo ideiak.
3. Logotipo lehiaketa antolatzekeo oinarriak onartzekeo proposamena.
4. Abian jarritako ekintzen gaineko informazioa:
 - Euskara ikastaroak egiteagatik (2010-2011) onartutako diru-laguntzak.
 - Aisa ikastaroa urtarriletik ekainera.
 - Etorkinak alfabetatzeko egitasmoa.
5. Eskariak eta galderak.



ONDARROAKO UDALA

2

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/1

Eguna: 2012-01-11

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:15

Tokia: Batzar-gela 2

Esan-eginak:

2. Batzordekideen ekintza-proposamenak:

- Aurrekontua osatzeko batzordekideen proposamenak: ez da proposamenik egin.
- Letren Jaialdia antolatzeko ideiak:

Batzordeburuak azaldu du gaia: Lantaldean landu dute gaia eta Augustin Zubikarai nobela saria, Letren jaialdia eta, oro har, literaturaren inguruan egingo diren ekintzak, denak data beraren inguruan bateratzea da asmoa; proposatu dute azaroaren leko astean egitea horiek guztiak.

Beste aldetik, letren jaialdia nola egin, horixe izan da mintzagai. Proposamenak lantzeko beste batzar bat egin behar dela ikusi da, zuzenean, Letren Jaialdia antolatzen parte hartu nahi dutenekin.

3. Logotipo lehiaketa antolatzeko oinarriak onartzeko proposamena.

Aurkeztutako proposamenari aldaketa hauek egin zaizkio:

- Aurkezteko epea luzatu: martxoak 15a arte
- Lanaren ezaugarriei buruzkoa honela ematea: Logotipoarekin batera agertu beharreko testua: Ondarroako Udal euskara batzordea

4. Abian jarritako ekintzen gaineko informazioa:

- **Euskara ikastaroak egiteagatik (2010-2011) onartutako diru-laguntzak:**

Idazkariak azaldu du espediente horren tramitazioa: Guztira, 25 eskera tramitatu dira. Diru-laguntzetarako aurreikusitako diru-kopurua, ordea, ez da nahikoa izan deialdiak ezarritako irizpideen arabera diru-laguntzak banatzeko. Aurrekontuan kreditu-aldaketa eginda ere 4.000,00 € zeuden, baina ez zen nahikoa. Hori dela eta, deialdian zehaztutakoarekin bat, hainbanaketa egin da; hartara, irizpideen arabera egokituko litzatekeen kopuruaren %80,85 jaso du bakoitzak eta guztira, guztira 3.999,98 euro banatu dira.

- **Aisa ikastaroa urtarriletik ekainera.**

Idazkariak azaldu du gaia: Izena emateko epea oraindik amaitu ez bada ere, guztira, 10 bat etorkinek eman dute izena. Hurrengo egunetan batzarra egingo du AEK-k izena eman duten guztiekin taldea osatzeko. Hasiera batean, urtarrila amaieran hasi eta ekainean amaituko da, Aisa ikastaro bi elkarren segidan egingo dira-eta.

- **Etorkinak alfabetatzeko egitasmoa.**



ONDARROAKO UDALA

UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/1

Eguna: 2012-01-11

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 20:15

Tokia: Batzar-gela 2

Batzordeburuak azaldu du gaia: Aniztasun batzordearen egitasmo bat da alfabetatu ez diren etorkinei laguntzeko, euskararen bitartez alfabetatu daitezzen. Gaia aztertu eta pentsatu dute merezi duela saiakera bat egitea borondatezko irakasleak aurkitzeko. Institutuko ordezkariak esan du badirela Batxillerreko ikasle batzuk laguntzeko prest.

5. Eskariak eta galderak.

AEKren ordezkariak esan du Udal Barriak aldizkarian lehen agertzen zela atzeko aldean euskararen aldeko aldarrikapena eta orain ez, ostera. Batzordeburuak hartu du bere gain hori argitzea.

ERABAKIAK

- **Batzar-agiri hau onartu da: 2011-11-30koa**
- **Letren jaialdia antolatzeko batzar-egun hau finkatu da: 2012-01-25, 19:00etan.**
- **Udal Euskara Batzordearen Logotipo lehiaketa antolatzeko oinarriak onartu dira**
- **Hurrengo batzar-eguna onartu da: 2012ko otsailak 29an, 18:30ean.**

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua
Leire Beitia

Idazkaria
Maite Rey